

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BASTIDAKO UDALA

Hasierako onarpena ematea 2016ko ekitaldirako aurrekontu orokor bateratuaren 3/2016 kreditu gehigarriari

Bastidako udalbatzak, aurtengo irailaren 21eko erabakiaren bidez, erabaki du hasierako onarpena ematea udal honen 2016ko ekitaldirako aurrekontu orokor bateratuaren 3/2016 kreditu gehigarriari.

Bat etorritz otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak, Arabako lurralde historikoko toki erakundeen aurrekontuenak, 15. artikuluan xedatutakoarekin, espediente hori jendaurrean jartzen da 15 egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, epe horretan interesdunek aukera izan dezaten espedientea udal idazkaritzan aztertu eta alkate lehendakariari erreklamazioak aurkezteko.

Ohartarazten da ezen, adierazitako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko dela udal honen 2016ko ekitaldirako aurrekontu orokor finkatuaren 3/2016 kreditu gehigarria.

Bastida, 2016ko irailaren 25a

Alkatea

LAURA PÉREZ BORINAGA